

Enbat

HEBDOMADAIRE
POLITIQUE BASQUE
4 septembre 2008
N° 2043
1,22 €

Loiola, consultation
et droit de décision

Elkar
Megadenda

L'alliance de
l'économie et
de la culture

Txillardegi
eta ziminoia
MARKOS ZAPIAIN

ISSN 0294-4596



91770294459006



Haut les cœurs !

CONSTRUCTIVE et instructive, telle fut, sans exagération, la mouture 2008 des universités d'été d'Abertzaleen Batasuna. Thématiques variées, allant du social au politique sans oublier l'environnemental, tables rondes, débats, formation, rien ne manquait au menu pour que ces trois journées soient une réussite et que les participants, adhérents ou non d'AB, y trouvent leur intérêt.

Au fil des ateliers, bilans, perspectives, propositions et points de vue venaient alimenter les discussions, mais deux sujets, au demeurant fort différents, attiraient l'attention. Le premier, en lien avec le processus de débat interne d'AB, posait plus de questions qu'il n'en résolvait. Quelles perspectives pour AB? Comment continuer, comment avancer, comment gagner? Au cœur de la réflexion, une intervention, qui rappelait le chemin parcouru ces quarante dernières années, incitait l'auditoire à l'optimisme : quel parcours extraordinaire que celui de ces hommes et femmes qui, refusant la fatalité ont contre vents et marées, défendu leur «être» profond, croisé le fer avec l'Etat qui avait programmé leur disparition, et porté sans faiblir leurs espoirs et leurs aspirations sur le devant de la scène! Quel tour de force de la part des abertzale qui, malgré leur position minoritaire voire marginale dans le panorama politique, sont parvenus à diffuser leurs idées dans la société, à imposer leur combat pour la dignité du peuple basque: une langue, longtemps méprisée qui devient objet de mode, un territoire incapable de garder ses enfants qui devient attractif et même victime de son succès, une culture soit disant passéiste qui fait l'événement et anime la place publique... Certes, l'avenir n'est pas rose, et tout ce qui se fait de positif ici ne vient pas forcément des abertzale, cependant, la ténacité et la qualité de

ses militants ont souvent eu raison de l'hostilité la plus vive et des projets les plus insurmontables. Comment désespérer devant tant de fougue que le temps ne semblent pas avoir altéré?

Autre jour, autres interventions. Les jeunes militants, venus partager leurs expériences devant les «frères et sœurs aînés» racontent leurs engagements, leurs luttes et leur vision de l'abertzalisme. C'est, mus par la révolte parfois, mais surtout par la volonté de changer le monde et la société qu'ils ferrailent, avec en ligne de mire, un même objectif: convaincre du bien fondé de leur choix, de la légitimité de leur sentiment abertzale. La partie n'est pas facile, et le succès pas nécessairement au rendez-vous. Cependant, ils ne renoncent pas. Toujours cette même fougue que l'on retrouve, ce même optimisme, cette certitude que rien n'est inébranlable, que l'avenir, forcément meilleur, est le résultat des combats du présent.

Haut les cœurs donc, en cette rentrée où le niet espagnol sur la consultation en Euskadi, l'absence de perspectives politiques encourageantes, la persistance d'une lutte armée anachronique ou le manque de postes d'enseignants concédés aux ikastola peuvent assombrir nos cieux. Militants de toujours ou jeunes non encartés sont là pour nous le rappeler, notre raison d'être, l'essence des abertzale, consiste bien en cela: être le ferment, le sel de cette terre basque que nous voulons plus libre. Tel est le cap que se fixe AB, loin des querelles partisans. C'est convaincre qu'il nous faut, convaincre et convaincre encore. Récolter le fruit de notre travail, régénérer notre combat pour le rendre plus efficace, travailler au cœur d'une société qui a tout à gagner à mieux nous connaître; et enfin, permettre la floraison d'une nouvelle génération d'abertzale. Haut les cœurs!

Goresmenak zuri Ingrid

JOAN den uztailleko lehen egunetan, zer atsegina, zu, Ingrid Betancourt, pantailetan agertu zinelarik, askatu eta kasik berehala, zeure aurpegi goxoarekin. Telebista horrek erraieraraino miazten eta salatzen baitu jendea, amesgaizto soil baten ondotik bezala zenirudien! Zure ezagutzak egitea zorion arraro bat izan zen. Emaztetasunarekin batean, zurekin dakartzazu, alabaina, hainbertze dohain: azkatasuna, demokrazia baina ere ihardukitzeko kemen miresgarria. Badakizu, bertzalde, gertakariak aski goratik hartzen, hitzak zetabetan irazten dituzularik lau haizetarat barreiatu aitzin. Badirudi estekan atxiki zaituzten sei urte horietan zuhurtziaz jantzi bete zarela. Itxaropena ez duzulakotz galdu dateke. Zerbait bada: ez zenuen bertzela holako aurpegi onik erakusten ahalko libratu bezain laster.

Alta zerbait zerbait jasan duzu: bakartasun izigarria oroz gainetik, sei urtez oihan beltzenetan eta zuhaurk dakizu zer jende motaren erdian! Ezinbertze lotsagarrienak gainditu eta etsimenduak garaitu dituzu. Eiki bada zure azkatasunak eragin duen oihartzun mundialaren pean burua hotz atxiki duzu, bakoitzari isuriz zeure barne aberatsetik goizeko ihintz fresko bat bezala, amultsuki. Ezin sinetsia da egiazki hoinbertze pairatu ondoan holako sanotasuna erakustea: zer mezua! Frogatu duzu zuhaur zinela, egiazki, duela zenbait denbora oihanditik helarazi zenigun gutun hunkigarri haren idazlea.

Zure askatzea ere ezin sinetsizko haitada izan zen; zure osasuna bezain sinesgaitza. Guzuen zorionak ez digu ahantzarazi behar, haatik, munduan gaindi beren idaiengatik preso edo bahituak direnak. Euskal Herritik hasiz. Eta gero, zure ingurukoak ere jendetasun handiz ibili dira. Ordea, zer zenituen ukaraiko arrosarioño haiek, doi-doia ageri? Denak, emazte adinik gabe zahartu, erdi basatu baten beha geunden eta horra non agertzen zaitzaizkigun oso ki jendea, zeure buruaren jabe, zintzoa bezain apala eta fededuna gainerat...


Baina zer derasat, ahantzia zintugun jadanik, Ingrid! Joan den astelehen arratsaldean Aita Sainduak errezebitu zaituelarik gara

denak berriz zutaz orhoitu. Udako amets eder bat izan zara, hots. Eta, bertzenaz ere, hemen abertzaleek, ez dugu kasurik egiten, espiritualitate kutsu zerbait darakustenei. Hemen kristautasunak ez du gogorat ekartzen gurutzadak, inkizizioa eta Madrilgo apezpikuen biltzarra baizik! Hemen, itzalik gabekoak balira bezala, marxismoak, existentzialismoak, elizen etsaigoak gaina hartuz doaz. Libroago sentitzeko asmoarekin, omen. Eta zuk aldiz, gatibu zinelarik, irau duzu eta zure baitako askatasuna begiratu zeure arrosarioak lagun! Txundigarria, zinez!

Ahantzia zintuzten aspaldian, alderdi sozialisteko buruek ere, egun hauetan, Arroxelan bilduak direnek. Zuri pentsatu dut, Ingrid, alderdi hortako elefanteen ibilera ikustean: horiek ez dute gauza bat baizik gogoan: Frantzia osoko hauteskunde presidentzialak! Hemendik lau urteren buruan direla: berdin du, haiek dituzte bakarrak gogoan! Nork daki zer axola zaizkien jendeen arrangurak, ezin biziak? Idaia baten bila dabilta —demagogioaz orhatua izanik ere berdin zaie— lehenik alderdiko arerioei nagusitzeko eta gero jendea liluratzeko...

Berdeak isilik dagozkigu menentoan. Kohn Bendit abiatua da denak bildu beharrez, sozialistak bezain zatiturik baitabilta. Eta hauek ere beti presidentzialek eman diezaieketen prediku aukli pargabe hura gogoan gauzen aitzinarazteko. Demokrazia ote da holako pertsonen arteko lehia bereko, azkenean okaztagarri horien sortzailea? Demokrazia ez, baina gure ustez, Frantziako instituzio politikoak. Presidenteak sobera botere dauka eskuan; lehengo erregeak bezainbat dela diote! Funtsean, demokrazia monarkista deitzen dute askok... Bai egiazki Frantzia eri da bere instituzioengatik gehienbat. Iraultza handi bat behar litzateke Parise, bazter guzian iredle den, kapitala horren puxantzia hausteko eskualdeen faboretan. Funkski eskualdekatzea hori bai litzatekeela egiazko iraultza! Baina noiz hasiko dira alor handi horren lantzen?

Ingrid, ez dakigu xuxen zer bide politiko hartuko duzun ondoko egunetan eta jakin-minez gaude. Anartean milesker eta goresmenak, zure lekukotasunarentzat.



... pas tant que ça du choix par Mc Cain comme colistière de la très conservatrice gouverneur de l'Alaska où il a bien l'intention de procéder à des forages pétroliers, à ce jour interdits pour préserver l'un des rares espaces inviolés de la planète. L'extrémisme du Vietnam, qui n'est pas manchot, se prend déjà pour l'empereur de l'Alaska.

... et réjouit d'une enquête montrant la perte vertigineuse de crédit des républicains dans l'armée américaine dont la moitié des 1,4 millions de troupes, jusqu'ici inconditionnels du parti réactionnaire, s'apprête à voter Obama. Si maintenant le QI des mirriflores se met à grossir, il faudra augmenter la taille du casque lourd.

... de la déconfiture des républicains obligés de repousser leur convention suite à l'arrivée de l'ouragan Gustav en Louisiane. Il ne leur manquerait plus qu'une marée noire.

... pas tant que ça que Laurence Parisot, patronne du MEDEF, renonce à son show médiatique à l'Ecole polytechnique de Palaiseau où elle avait prévu d'atterrir en parachute, officiellement par respect pour les militaires tués en Afghanistan. Serait-ce que le parachute n'était pas assez doré?

... pas tant que ça qu'une étude d'une organisation de consommateurs montre qu'en un an les prix dans les supermarchés ont augmenté du double (plus de 6%) de ce qu'indique l'INSEE. A ce rythme il ne restera bientôt plus qu'à aller jouer au casino ou à mendier aux carrefours.

... et réjouit de l'occupation symbolique de la villa de Christian Clavier en Corse par une trentaine de militants nationalistes pour dénoncer la spéculation foncière. Voilà des «visiteurs» que le pote à Sarko n'attendait pas.

... pas tant que ça du tour de force des édiles BAB-iens qui lancent une deuxième tranche de résidences universitaires sur le site de St Crouts que l'on vient justement de vider de ses étudiants pour les envoyer à 3 km de là à Anglet et sur le site des casernes de la Nive à Bayonne. On ne sait pas où iront les étudiants mais on sait déjà où sont les cancrés!



On ne peut pas arrêter Euskal Herriko Laborantza Ganbara !

EUSKAL Herriko Laborantza Ganbara a été créée en janvier 2005; bien que les statuts de l'associa-



tion aient été déposés dans les règles, et enregistrés par les services de la préfecture, le préfet de l'époque avait, au cours de l'année, porté plainte au pénal contre Euskal Herriko Laborantza Ganbara considérant que le nom et l'objet de l'association étaient illicites! Pendant trois ans la police judiciaire a fait son enquête et le procureur de Bayonne décide aujourd'hui de poursuivre son président, Michel Berhocoirigoin, qui sera convoqué devant le tribunal de Bayonne en correctionnelle le 18 septembre.

Par son travail, Euskal Herriko Laborantza Ganbara accompagne les paysans

L'assemblée plénière d'Euskal Herriko Laborantza Ganbara et le conseil d'administration d'Euskal Herriko Laborantza Ganbararen Lagunak ont décidé de rendre cette information publique. En effet, depuis trois ans, Euskal Herriko Laborantza Ganbara travaille au service d'un projet, le développement sur le territoire Pays Basque d'une agriculture paysanne et durable. Par son travail, Euskal Herriko Laborantza Ganbara accompagne les paysans dans une démarche qui amène à produire des aliments sains et de qualité, grâce à des systèmes de production qui se veulent respectueux de la nature, et donc ré-

Maryse Cachenaout

pondent aux besoins de la société. Avec une équipe de 10 salariés maintenant, ce sont des services de proximité qu'elle apporte aux paysans, et au milieu rural, par la diffusion d'informations, la mise en place de formations sur des pratiques autonomes et économes par exemple, mais aussi l'accompagnement des exploitants lors de transmissions d'exploitation, ou encore par l'apport de compétences au syndicat des Nives sur les pollutions d'origine agricole avec un diagnostic et une enquête auprès de plus de 300 exploitations... Ce travail de terrain commence à porter ses fruits, et on voudrait nous arrêter?

Les articles de loi auxquels se réfèrent l'accusation prévoient jusqu'à 15.000 euros d'amende, un an de prison pour le président et une fermeture de l'association! Il ne s'agit donc pas d'une accusation à prendre à la légère, et nous comptons bien nous défendre! Afin de prendre connaissance du dossier, et établir notre stratégie de défense, nous demanderons le 18 septembre le report du procès; mais en attendant le jugement, nous tenons à affirmer très clairement que nous continuerons à travailler sereinement, et dans la transparence comme on l'a toujours fait, car en aucun cas, nous n'estimons être «dans l'illégalité»!

Des accusations infondées

Pour l'assemblée plénière de Euskal Herriko Laborantza Ganbara et le conseil d'administration de Euskal Herriko Laborantza Ganbara Lagunak, cette accusation reste grave à plusieurs titres:

- Il est inacceptable que l'Etat sensé garantir et encourager les démarches de développement durable, veuille sanctionner une association dont l'objet même s'inscrit dans ce sens!

- Il est intolérable que depuis trois ans Euskal Herriko Laborantza Ganbara soit harcelée à de nombreuses reprises, directement ou indirectement, par des propos ou des actes pour le moins tendancieux, qui conduisent toujours à une «présomption de culpabilité».

- Il est criminel, dans un contexte de crise économique grave que subit le monde agricole de plein fouet, conséquence de mauvais choix en matière de politique agricole, (par une mauvaise répartition des aides, l'encouragement insuffisant de systèmes durables), qu'on veuille nous sanctionner à nouveau, alors que l'on propose justement des alternatives intéressantes!

- Il est inconcevable enfin que la liberté d'expression d'une association soit à ce point remise en cause! L'expression d'une revendication ne peut être considérée comme illégale dans un Etat qui respecte la liberté d'expression...

- Et... il est sans doute inimaginable que la même chose se soit passée si nous étions dans les Charentes Maritimes plutôt qu'en Pays Basque.

Pour ces raisons, et bien d'autres, Euskal Herriko Laborantza Ganbara a plus que jamais besoin du soutien de tous les citoyens qui partagent son projet de développement, qui reconnaissent le travail accompli, ou simplement qui pensent qu'une association qui œuvre dans le sens d'un intérêt collectif de façon transparente et porte des revendications de façon non violente ne doit plus être attaquée de la sorte!

Le 18 septembre montrons que l'on tient à Euskal Herriko Laborantza Ganbara!





Peio D'Uhalt : « Gizarte modernoan eta mundu zabalean ditugun gizabaliabideei baliabide ekonomikoak erabiltzeko garatu da Euskal Herri osoan bai Iparraldean bai Hegoaldean. Liburu denda eta hipermerkatu guzietan euskal liburu eta diskoak saltzen dizkiegu. »

La librairie Elkar Megadenda de Bayonne fait partie du groupe Elkar. Présent des deux côtés de la frontière, ce groupe s'est développé au cours des 35 dernières années dans les domaines de l'édition, de la distribution et de la commercialisation des livres et disques.

Dès le départ, les fondateurs d'Elkar ont estimé qu'il était nécessaire d'allier l'économie et la culture pour aider l'euskara. En 35 ans, ils ont créé un groupe de 24 entreprises qui appartiennent toutes à la Fondation Elkar et qui réinvestissent systématiquement l'ensemble des bénéfices pour le développement de la langue et de la culture basques.

Livres et disques basques sont distribués sur l'ensemble d'Euskal Herria dans 16 magasins. En 2007, le groupe Elkar a publié ou republié 450 livres et 20 disques.

Lorsque Elkar Megadenda (à l'époque Mattin) a été créé en août 2000, c'est le pari d'une offre culturelle diversifiée qui a été pris. Au bout de huit ans, ce pari est réussi. Les ventes liées au rayon basque ont beaucoup augmenté et de nouveaux clients sont venus. De nombreux partenariats culturels ont également été mis en place (Atalante, Faculté, Association de Recherche de Castillon, Biarritz Festivals, Festival de Bayonne, EHZ, Ruée au Jazz, Fondation MRA, Atabal...)

Cela ne va pas sans difficulté, car la concurrence des enseignes multinationales est rude et l'image basque reste, pour certains, un frein.

Aujourd'hui, la faculté s'installe à côté d'Elkar, suscitant l'espoir d'un apport dynamique au quartier.

Pour cette rentrée, les responsables ont changé la disposition du magasin pour un accueil plus agréable.

Peio D'Uhalt, directeur du magasin, nous rappelle l'histoire d'Elkar Megadenda et trace les perspectives d'avenir.

EBNATA: Orain Elkar Megadenda liburu eta dizka saltegi ezagunenetak da Iparraldean. Zer da xuxen Megadenda?

Peio D'Uhalt: Baionako Elkar Megadenda Elkar taldearen denda bat da. Talde honen enpresa guziaz bezala, Elkar fundazioaren jabetasuna da. Euskararen eta euskal kulturaren sorkuntza, sustapena eta garapena modu eragin-

● Banaketa zerbitzua garatu da Euskal Herri osoan bai Iparraldean bai Hegoaldean. Liburu denda eta hipermerkatu guzietan euskal liburu eta diskoak saltzen dizkiegu.

● Dendak ere zabaldu ziren urte hauetan. Lehenik Baionan Zabal liburudendarekin (1972) eta Donostian Bilibintz dendarekin (1976). Ondotik 14 denda ideki ziren. Hasieran euskal kulturaren espezializatuak baziren, 90 hamarkadan erabaki zen megadenda konzeptua garatzea. Eskaintza komertzial zabal



Peio d'Uhalt

baten parioa zen, euskal kultura hobeki hedatzeko, taldea garatzeko. Megadendak sortu dira Donostian, Iruñean, Bilbon, Gazteizen eta Baionan 2000ko agorrian.

Gaur egun Elkar taldean, 24 enpresa dira eta irabaziak, berriz, inbertitzen dira euskal kulturari. Orduan Elkar megadenda enpresa bat da bainan ez ohikoak...

Enb.: Zertan da Megadenda zortzi urteren buruan? Itxaropenak bete dira?

P. D'U.: Elkar megadenda euskal kulturarent-

korrean bultzatzeko sortu da talde hau.

Elkar Fundazioak uste du gizarte modernoan eta mundu zabalean kultura sortu, garatu eta zabaltzeko eduki ditugun gizabaliabideei baliabide ekonomikoak jaretzea ezinbestekoa dela, kultura eta ekonomia uztartzera jo behar dela bete-betean.

Azken 35 urte hauetan, Elkar taldeak ildo honi segitu dio eta «industria» kulturala muntatu du argitalpena, banaketa eta komertzializazio ardatzetan.

● Argitaletxea azkartu da eta 2007 urtean 450 liburu argitaratu edo berargitaratu ziren taldearen argitaletxe guzietan artean (Elkar, Ttartalo, Sua, Txertoa). Liburuaz gain, *El Mundo de los Pirineos* eta Euskal Herria aldizkariak argitaratzen ditu Suak. Musikagintzan Elkar eta Oihuka labelak 20 bat disko argitaratzen dute urte guziz.

zati erakuslehoia dela segur da. Gure eskaintza komertziala zabalduz, euskal gaiari lotu salmentak aintzez handitu dira. Horrek erakusten du hutsune bat bete dugula eta positiboa da.

Horrez gain, Elkar Megadenda 8 urte hauetan sektore berrietara garatu da: erosle berri asko irabazi ditugu.

Lorpen hauek ez dira errexki lortzen: multinazionalen konkurrentzia dugu eta dugun euskal irudia oztopo bat gelditzen da oraindik batzuentzat.

Enb.: Zein aldakuntza (salgaietan, marketing-ean etab) egin duzue azken urteetan erosleagari egokitzeko?

P. D'U.: Gure lehentasunak izan dira gure zerbitzua hobetzea, ekitaldiak antolatzea eta partaidetzak bultzatzea, hala nola Atalante, Fakultatea, Association de recherche de Castillon, Biarritz Festivals, Baionako ant-

Joana Arbeletche, Basaizea elkarteko langilea

"Jendartearekilako hurbiltasuna, eraginkortasunaren gakoa"

Baigorriko eskualdean, euskara eta tokiko bizia sustatzeko, Basaizea elkarteak, jendartearen parte hartzea bultzatzen du.



Joan den apirilaren 20an, So'in Baigorri gazte ikusgarriak, bideo, antzerki, musika eta kantuak nahasi ditu besteak beste... Gazteek, ikusgarriaren bidez eta ikusgarriaren preparatzeko, lurraldearentzat, euskararentzat eta tokiko ekimen eta aktoreentzat duten interesa aurkeztu dute... umorea lagun!

L'association Basaizea est connue pour sa vitrine Nafarroaren Eguna, qui est célébrée à Baigorri depuis 1978. *Alda!* a rencontré Joana Arbeletche, permanente de Basaizea afin de découvrir, les moyens mis en oeuvre pour faire vivre la langue et la culture basques dans le canton de Baigorri. Plus que la vitrine ou la pointe de l'iceberg l'entretien nous donne l'occasion de découvrir les démarches menées par l'association tout au long de l'année pour faire vivre la langue basque, les dynamiques locales et la participation citoyenne !

Zer da Basaizea elkarteak?

Basaizea Baigorriko kantonamenduaren eremuan ari den Kultur Batasuna da. Hiru lan ardatz nagusi sortzetik jorratzen ditu:

Euskararena: hizkuntza salbatzea eta normalizatzea ditu helburu. Hortarako elkarte gisa bere ekitaldi guzietan bai eta ere elkarte bizian Basaizeak euskara bizi arazten du.

Eskualdeko biziarena: tokiko ekimen/ inizatibak bultzatzea edo sustatzea eskualdeko aktoreekin partaidetza garatuz (ikastetxe, elkarte, etab.)

Herritarren parte hartzearena: herritarren partaidetza eta parte hartzea indartuz jendartearen arrangurak konduan hartzeko eta agertarazteko momentuan... bai eta ere aterabideen atzemaiteko momentuan.

Kulturari buruz gogoeta berezi bat eramaiten duzue...

Basaizean ez dugu "kultura" aktibitate artistikoetan (musika, antzerkia, dantza, arte plastikoa, literatura, zinema, etab.etan) mugatzen. Ez dugu helburu bakartzat aktibitate horien sorkuntza, promozioa eta hedapena laguntzea.

"La proximité avec les habitants est un élément déterminant pour l'efficacité et la permanence des différents projets de Basaizea".

Elkarteak "kultura"-ri definizio zabalago bat eman nahi dio, "kultura" k gure eguneroko balore eta gure munduari buruzko ikuspegiaren eraikuntzan parte hartzen delako. Gure bizitzeko moduak eta egiteko manierak bideratzen eta eragiten ditu.



Joana Arbeletxe

Ber moldean Basaizeak kultura partehartzaile eta barneratu bat sustatu eta garatu nahi du. Herriak, kultura bizi behar duelako eta kulturaren jabe izan

behar duelako.

Adibide gisa, tokiko ekoizle eta erosle zonbaitekin egina izan den gogoeta hartzen ahal da. Ekoizle sarea garatua eta aberatsa dugu eskualdean... eta MERKAT'IA ekimenaren bidez, merkata berriz piztea erabakia izan da. Horrek herritarren arteko harreman gune, elkargune berri baten sortzeko baita ere tokiko ekoizpenak ezagutarazteko eta baloratzeko balio du. Erosle eta ekoizleen arteko harreman zuzenak pizteko edo garatzeko. Orain bigarren gogoeta fase batean gira beti ekoizpenekin MERKAT'IAren "formula" garatzeko eta iraunkorrazteko!

Antolakuntza mailan zer dira zuen ezaugarriak ?

Basaizeak elkarte gisa badu Administrazio Kontseilu bat eta jorratzen ditugun arlo ezberdinetan Lan Taldeak antolatzen ditu. Hara nola Bixentainia Ostatuarentzat, Etxebizitza, Haur eta Gazte, Euskara, Ekonomia arloetan, Arte eta Kultur adararentzat, Nafarroaren Eguna/Kulturaldiarentzat, Urteko ekitaldiarentzat (ihaute-riak, urtats gaua, olentzero eguna, etab.), Bagata edo 16-25 urteko gazte taldearentzat...

Elkartek bere helburuen gauatzeko lan postu bat eta erdi segurtatzen ditu urtean zehar antolatzen dituen aktibitateekin. Nafarroaren Egunak ere tokiko proiektu batzuek edo Basaizearen filosofiarekin bat datozen proiektu batzuek diruztatzen ditu. Horrek erran nahi du elkartearen helburuak gauatzeko eta ibilbide nagusiak segurtatzeko Basaizeak badituela bere bizibide autonomoak. Gure lehentasunen obratzeko medioak gure lanaren gain dira ez eta aldakor izaiten ahal diren "moda" edo "kanpoko" lehentasun batzuren menpe!

Azkenik, barne komunikazioa (kideen sarean) gero eta gehiago mezu elektronikoen bidez egiten dugu. Ehun bat helbidez osatua da datu base hori eta web guneko berritasunak (www.basaizea.com) ezagutarazteko Berri Paper elektronikoa bat muntatzeko xedea dugu.

Ekimen baten gauatzeko momentuan zer bide jorratzen duzue?

Eredutzat erabiltzen ahal dugu *So'in* Baigorri ikusgarria, joan den apirilaren 20an arrakasta haundiarekin emana izan dena Baigorri. 11-15 urteko gazteek proiektua garatu eta oholtzan eman badute ere 6-10 urteko haurren parte hartzea izan da eszenatoki apailaketa tailerretan... bai eta ere Herri Urratseko jauntzien desfilean. Gazte ikusgarriak bideo, antzerki, musika, kantuak, etab. nahasi ditu besteak beste!



Kantonamenduan diren 11 herrietatik zonbeitzutan Basaizearen programa agertzen da aisaldien eskaintzan! Baigorriko eskualdean 5 500 biztanletik goiti badira.

Ikusgarria emana izan den zinema gela bete bete zen eta ikuslegoa loriatua. Alta, *So'in* Baigorri ez zen Basaizeak aurreikusia zuen ekitaldi bat. Ikusgarri hori, Basaizeak partaidetza eta parte hartzea sustatzeko egiten duen xinaurri lanaren ondorio baikor bat bakarrik ez da. *So'in* en kasuan, iaz 500 bat inkesta igoerriak izan ziren eskualdeko ikastetxeetako burasok guzietan galdegiteko zer aktibitate mota nahi zuten gazteen euskarazko aisaldientzat. Ikastetxeetako arduradun eta erakasleekin hurbileko lana egina izan zen (telefonozko deien bidez, zuzenean galderak/inkestak emanez, berriz zuzenean bilduz emaitzak, etab.) Horri esker Basaizeak lortu ditu 150 erantzun paper! Erantzun horien arabera antolatuak eta eskainiak izan dira aisaldiko animazioak eta iaz, udako euskarazko aisaldietan

aldi oro 15 bat haurren parte hartzea lortu dugu. Lehen arrakasta horren ondotik, aisaldien bilana egiteko atsala askari bat antolatu dugu. Hortik atera da gazteen partetik urtean zehar tailer jarraiki baten plantan ezartzeko beharra (2008ko *So'in* ikusgarria eman duena!) eta 2008 udako programazioarentzat egokitze proposamen batzuek.

Bestalde, ohartu gira proiektuak garatzeko unean jada komunikazio lana egiten dela! *So'in* entzat, gazteek dute hautatu tokiko bizian eta dinamikan garrantzia duten zein aktore ekonomiko eta kultural aurkeztu. Bideoen bidez egindutuzten lekukotasun grabaketa horiek elkarrizketatuei ikusgarriaren berri eta tirria eman die. Aktore gazteek bere konzientzia hartu dute ekimen edo ikusgarri batentzat zein goizik komunikatzen hasten ahal den...

Aurten kolegioko gazteei buruz lan berezi bat erama izan da. 300 bat gutun igoerriak izan dira Baigorriko eskualdeko gazteak atxemaitzen diren kolegioetara (Baigorrikoa, Garazikoa eta Larzabale eta Kanboko ikastolen kolegioetara). Ondorioz 10 bat gazte ari dira Euskal eta Afrikar perkusio tailer batean 2009ko ikusgarri berri baten antolatzen!

Zer dira egiteko molde berezi horren ondorioak?

Basaizea elkarteak eskualdeko aintz elkarterekin partaidetza harremanak lantzen ditu. Hilabeteko lehen larunbatean MERKAT'ia, tokiko ekoizleen merkatuaren antolakuntza eta dinamizazio lanean parte hartu du, Bai euskarari kanpainaren sustatzeko tokiko elkarte, saltegi eta enpreekin ere elkarlana jorratu du. Hots Basaizearen Lan Talde ezberdinek, partaidetza eta parte hartzeari esker lortu dute elkarteari lagungarri diren sinesgarri eta ikusgarritasun baten emaiten. Adibide baten hartzeko bakarrik, gaur egun Bidarrai, Ortaize eta Arrosako aisaldi proposamenetan Basaizearen programazioa ere eskaintzen dute...



Aurten tailer jarraikia "*So'in Baigorri*" ikusgarriaren inguruan zen. 2009koa Afrikar eta Euskal perkusioen inguruan. Kantonamenduko 10 bat gazte jada hasiak dira trebatzen.

Bagata

Gazte gogoetak eta ekintzak uztartzeko



Bagatak antolatutako "Uda Gaua"!

Zer da Bagata?

Bagatak erran nahi du BAsaizeako GAzTe TALdea. Basaizearen barnean baldin bada ere, funtzionatzen du Baigorriko gazte taldea balitz bezala. Baigorriko gaztetxea bezala kontsideratzen ahal da.

Noiz sortu da?

Bagatak, orain ezagutzen dugun bezala 5-6 urte ditu. Hastapenean, talde bat muntatu zen gaztetxe baten sortzeko. Gero, talde hau Basaizean sartu zen, proiektu amankomun baten eremaiteko.

Zer helburu du eta nola lan egiten du?

Helburu haundiak Basaizearen dira. 3 ardatz nagusitan emanak: *Baigorri eskualdu* / *Baigorri bizi* / *Baigorri Eskual Herrian kokatu*.

Orduan, gazteer egokitzeko, Bagataren antolakuntza 4 sailetan zatikatu dugu.

1) Gaualdi/ekitaldiak: urtean zehar gaualdi/kontzertu zonbaitzuk antolatzen ditugu, baita ere futbol edo errugbi lehiaketak, izpegiko bizikleta lasterkaldia, baxe nafarroko xibaren final erdia... Ekitaldi horien bitartez, Baigorriko eta inguruko gazteeri animazio batzuk proposatzen ditugu. Gaualdietan irabazia den sosa, inguruko elkarte batzuer laguntza gisa emana da (Baigorriko ikastola / Irulegiko Irratia / Askatasuna / Euskal Herria BAI...). Bixtan dena, mezu batzuen pasaratzeko parada da ere bai.

2) Bixtania ostatua ostiral guziz idekirik atxikitzen dugu. Hori egin da Baigorri bizi pixka bat emaiteko baita ere jender toki baten proposatzeko nun eskuara ongi etorria den.

3) Informazio bilkurak antolatzen ditugu, gure herriaren hobeki ulertzeko eta ezagutzeko. Guretzat, abertzale izanez, formakuntza bat beharrezkoa da politiko eta ekonomiko egoeraren ulertzeko. Hilabetero, antolatiak dira. Besteak beste: Leia, Askatasuna, Laborantxa ganbara, Autonomia eraiki, Nafarroko historia, Udalbiltza, Hemen... etabarrekin.

4) Harremanak saila: alde batetik, Baigorriko eskualdean, beste herrietako gazte taldeekin entseatzeko gira elkar lan batzuen aintzina eremai-

tea. Bestalde ere, Baigorritik kanpo, entseatzeko gira harremanak bultzatzea Hego Nafarroako gazteekin. Ideia zabaldu taldean parte hartzen dugu ere, Baxe Nafarroko taldean. Horri esker, harremanak sortzen ditugu iparraldeko eta eskual herri osoko gaztetxe eta gazte taldeekin.

Bagatak, Basaizearen administrazio kontseiluan parte hartzen du. Bestalde ere, Basaizearen ekitaldietan, Bagatakoak parte hartzen dugu. Biltzen gira beti Bixtania ostatuan.

Belaualdi berriak nola lotzen dira euskarari, euskal kulturari?

Gauladien bitartez eta ekitaldien bitartez, adin guzietako jendeak biltzen ditugu. Informazio bilkurak gazteentzat eginak dira, guri egokitzen ditugu. Bestalde, antolatzen dugun guzia euskaraz egin da, guretzat euskararen biziartzea lehentasuna baita. Eskualdun gai direnak ongi etorriak dira, bixtan dena!

Bilkurak "egokitu"?

Inportante da ez bakarrik gogoetak egitea baita eta ekintza konkretuei pentsatzea ere.

Eta hortarako, antolatzen ditugu informazio bilkurak eta holako gauzak, gazteen inplikazioaren bultzatzeko. Gauladiak beti gazte ainitz biltzen dituzte! Eta azken aldietan, beti jende multxo pollit bat bildu gira bilkura guzietan ere.

Geroari buruz zein dira desafioak... eta arriskuak?

Gu, beti entseatzeko gira gazte gero ta gehiago inplikatzeko, eta formatzeko. Baigorri mugiarazteko eta eskualduntzearen gure desafio haundienak. Arriskua izan liteke taldearen ixtea, eta "gettho" batean sortzea, bainan ikusiz urtero jende berri batzuk hurbiltzen direla, konfiantza ainitzekin lana segitzen dugu.



Mikel Curutcharry

Antiturista gaua

Xemartin Miñaberri

Donaixtikoa besta bezperan, Bota gaztetxeak antolatu du izen bereko gaualdia. "Puuu asia nuxu, sobera kakinarazten nixie turistek", horra soinu deiko ebanjelio azalez inoxenta, denboran zegoen militantzia zurrunetik urrun. Oroitzen zirezte Herri Taldeen afitxa haiez: "Touristes attention, ici il y a un peuple, une langue" edo holako zerbait. Mezua bi aldeetara paratua: turistei bistakoa, eta hemengoei ere, euskaldunak populu bat zirela, hizkuntza bat zutela jakin zezaten, larderiaz bederen, arrailleriarik ez baita izaten estrategia politiko-militarretan.

Oraiko gazte hauen burrasoak kexu omen ziren, betiko anti-en anti-ak ere, ohartzen direnez nori saltzen dituzten beren gasnak? Ez dela eroslea eta arrotzaren horrela ohiltzeko dretxorik, hots, duela hogoi urteko ber solasak.

Gaur antiturista gaua egiteak orduko ber mezuak karreatzen ote ditu? Ez naski, zeren giroa aldatu da, eta guhaur ere lasai asko turistak bilakatuak baikira, eta ezin baitugu bestea turistatzen deitu osoki "beste" balitz bezala. Abertzale edo abertzale kumeek seurik, erran nahi dut gaztetxeetan okupatzen diren horiek, sozio eta logikoki oportetan ibiliak baitira (Kortsikan bederen edo masa turismoaren beste zenbait tenplotan).

Giroa hori baita, turistak gira, eta kanpora ez doazanak etxeko telebistatik bidaiatzen dute besteen intimitateetan. Eta uda oroz - gertatuko zauzu zuri ere - zirkulu horietan lehen galdera hau da: "norabait abian?". Norma joaitea baita, eta arraroa joaiteko emeia ez ukaitea.

Aisialdia kontsumitzea bilakatu da gure egunerokoa, eta hau da galdu dugun kultur borroka fundamentalena. Besteek prestatua kontsumitzea guhauenez egiteko partez. Eta ohartu girenarako, hemengoen (abertzale ala ez) turismo ekintza must-ena, bere kulturaren bidaiatzea bilakatu da, nun ez baita bereixten kanpoko ala etxeko turista, biak berdinean xoratuak direlarik basque koloreko free jazz, pastorala blues edo kitx zaldikada (kabal-kada) bati so.

Denborak aldatu dira, baina gure kultura bizi nahi badugu, antiturista izateko beharrezkoago, etxetik hasirik!

Matinée de formation, samedi 13 septembre de 10h00 à 12h30

Initiation à l'économie

Après "Une petite histoire de la pensée économique", Pascal "Skual" Mulet anime une session de formation sur la vie et l'oeuvre de Keynes

Ce samedi 13 septembre (10h00-12h30) Pascal «Skual» Mulet anime une nouvelle session d'initiation à l'économie en présentant la vie et l'oeuvre de Keynes, un auteur qui a révolutionné la pensée économique du XX^e siècle. Cette matinée sera une nouvelle occasion d'explorer - au travers un auteur - une discipline et un domaine qui nous concernent toutes et tous.

La première formation du 7 juin dernier "Une petite histoire de la pensée économique" nous a donné l'occasion de découvrir plusieurs personnalités ayant marqué la pensée économique.

La formation ouverte aux non initiés a permis aux participants de connaître, via ces penseurs, différentes facettes de l'économie.

Du «Sans un système philosophique, on ne peut venir à bout de rien» de K.

Marx (1818-1883) qu'on trouve dans une lettre à l'attention de son père (1837) à «Ce n'est en outre que justice que ceux qui nourrissent, habillent et logent l'ensemble du corps social aient une part suffisante du produit de leur propre travail pour être eux-mêmes

correctement nourris, vêtus et logés» d'Adam Smith (1723-1790) de nombreuses citations et illustrations ou divers schémas rendent la formation très enrichissante.

Ce samedi 13 septembre, la formation "Keynes: suis-je un libéral?" nous permettra de mieux découvrir celui pour qui "Une histoire de l'opinion est un préliminaire nécessaire à l'émancipation de l'esprit. Je ne sais



Journée de formation du samedi 7 juin 2008
"Un outil pour mieux comprendre les débats politiques et actuels"

pas ce qui rend un homme plus conservateur : ne connaître rien que le présent, ou rien que le passé" ("La fin du laissez-faire").



Initiation à l'économie - Samedi 13 septembre de 10h à 12h30
Keynes : Suis-je un libéral ?
Un jeune bourgeois à Cambridge, une révolution théorique, le rôle de l'Etat, Keynes et la création du FMI, la pensée de Keynes aujourd'hui etc...
par Pascal "Skual" Mulet
ENTRÉE GRATUITE
20, rue des Cordeliers - Petit Bayonne
Renseignements et inscriptions au :
06 14 99 58 79
ou e.mail : ipar@mrafundazioa.org

L'Agenda de la Fondation

